

R. GOSCINNY **Asterix** A. UDERZO

IDEFIX®

ETA MENDERAKAITZAK
MENDERAKAITZEN ZIRKUA

Testuak: C. Bacconnier - Y. Coulon - S. Lecocq

Marrazkiak: D. Etien - P. Fenech - Rudy



FENECH-


SALVAT

GOSCINNYK ETA UDERZOK
AURKEZTUTA

MENDERAKAITZEN ZIRKUA

Testuak: C. Bacconnier - Y. Coulon - S. Lecocq

Marrazkiak: D. Eftien - P. Fenech - Rudy






K.A. 52. URTEAN GAUDE. ERROMATARREK LUTEZIA OSOA ARMAZ HARTUTA DAUKATE... OSOA? EZ! IDEFIX BURU DUELA, LUTEZIAKO ANIMALIA MENDERAKAITZEN BANDA BATEK ORAINDIK ERE BURUA MAKURTU GABE EUSTEN DIE INDarREZ SARTU NAHI DUTENEL. ETA BIZIMODUA EZ DA BATERE EROSOA LUTEZIA ERROMATARTU NAHI DUTEN LABIENUS JENERALA ETA HAREN TXAKUR TALDEARENTZAT...



IDEFIX, ABENTURA HAUETAKO HEROIA, ARGIA ETA BIZIA DA, USAIMEN FINEKOA. MENDERAKITZEN BURU, LUTEZIA ERROMARTU NAHI DUTENEN AURKA DABIL BORROKAN. GAUZA BAKARRAK ATERATZEN DU BERE ONETIK: TXIKIA DELA ESATEAK!



TURBINE LUTEZIAKO TXAKURRIK BIZKORRENA DA! LAGUNTZEKO PRESTUTASUN HANDIA BADU ERE, ZORITXARREZ, ESAN ORDUKO AHAZTEN ZAIZKIO IDEFIXEK AZALDUTAKO ASMO GUZTIAK ...



HARAKIX TALDEKO INDARTSUA DA. ERROMATAR TXAKUR TALDEEN AURKA OLDARTU ETA AIREAN BOTATZEA DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIONA! TOLOSARRA JAIOTZEZ, OILASKIX ETA ARDIKINE HARAKINAK DITU NAGUSI, ETA HAIEK EGINDAKO LUKAINKEKIN BURUA GALTZEN DU!



BALENTINE KATEME ASKEA DA, KONFIANTZA HANDIKOA ETA ZIRIKATZAILEA. LUTEZIAKO TXOKO GUZTIAK EZAGUTZEN DITU, ETA ATZAPAR ZORROTZAK ATERATZEN DITUENEAN, ERROMATAR TXAKURREK GORRIAK IKUSTEN DITUZTE!



GAUTXORIX HONTZA AMNESIX DRUIDAREKIN BIZI DA BASOAN, ERROMATARRENGANDIK IHESEAN. IKUSI ETA IKASI, NAGUSIAREN ANTZERA DRUIDATZAT DU BERE BURUA. EDABEAK PRESTATZEKO OSAGIAK NAHASTU ARREN, SEKULA EZ DU DESIRATUTAKO EMAITZARIK LORTZEN!



ASMATIX USO ZAHARRA LUTEZIARRA DA. GALIAR GUDUETAKO BETERANOIA IZAKI, CAMULOGENO GALIAR BURUZAGI GARAITUARI MEZUAK ERAMATEN ZEBILELA ZAURITU ZUTEN. LUTEZIAREN OROIMEN BIZIA, BERE JAKINTZA GUZTIA PASATZEN DIE MENDERAKITZEI. ETA, NOLA EZ, KALEAN USO, OGIA GOXO! EZIN EZETZIK ESAN LURRERA BOTATAKO OGI-PAPURREI!

MENDERAKAITZEN ZIRKUA

TESTUA: YVES COULON
MARRAZKIAK: PHILIPPE FENECH

LUTEZIAN, BIZITZA GERATU EGITEN DA BAZKALORDUAN. ETA EZ DAGO GALIA OSOA ZEHARKATU BEHARRIK INGURUETAKO GUTZIZIAK DASTATZEKO...



ZATOZTE, MENDERAKAITZAK! AHOSABATAK GOXATZEKO ORDUA!



GUZTI HAZI NIRE NAGUSIAREN KONTURA!
BAI ESKUZABALA ZURE NAGUSIA, HAKIX!






GARAI ZAILETAN, IDEFIX, GALIARROK HANKATXOA EMATEN DIOSU ELKARRI! GIZAKIEK ETA TXAKURROK!
GIZAKIEK ERE HANKAK AL DITUZTE? ZIUR AL ZAUDE?
ZER DA ISKANBILA HORI?!







SOOOO!!!
OOORRRROO!
KRIIIIIII!
?!



HORIEK EZ ZIREN TRIPAZORRIAK, HORIEK TRIPAHEOTIAK ZIREN, ARRAIOA!







SENAREN ERTZEAN ERAIKI DUTE
MERKURIOCRUM ZIRKUA, ETA LUTEZIAKO
GALTZA LASAIDUN URREZALE GUZTIENTZAT
MODA-MODAKO LEKUA DA: "TXIKITZEN DUT
BERAZ BANATZ"; HORRELA DIO GLADIATOREEN
ESAERA EZAGUNAK.

ARRAIOA,
ZE ZIRKU DA
HAU?!*

uuuuuuuu!
BIZKORRAGO!!! LABIENUS
JENERALA ZAIN DUGU!

TXAKA!!

*HARAKITXEK EZ ZUEN ASKO ESPEROKO GAUR EGUN ORAINDIK ERABILTZEN DEN ESAERA BAT SORTUKO ZUENIK.

AVE, O LABIENUS
JENERALA!

TXIKITZAILERUS!
BAZUAN ORDUA!

ZE ITXURA DITEK ZIRKUKO JOKOEK?
HERRI ZULO HONI IKUSKIZUN EPERRA
ESKAINIKO AL DIOK? ERROMA
LORIATSUAN BEZALAKOA?